

HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

EBAZPENA, 2020ko martxoaren 31koa, HABEren zuzendari nagusiarena, 2020/1 jardunbidea emateko dena, COVID-19aren kutsatzearen ondoriozko hedapenari aurre egiteko aurrez aurreko jarduna etenik egongo den aldiaren indarrean egongo dena.

HABEren zuzendari nagusiak 2020ko martxoaren 13an Euskal Autonomia Erkidegoko euskaltegi publiko zein pribatuei aurrez aurreko ikasjardunak eteteko jakinarazpena bidali zien, COVID-19aren kutsatzearen ondoriozko hedapenari aurre egiteko Osasun Sailaren Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendariak igorritako agindua betez.

Irizpide horri jarraikiz, bere eskumenen eremuan erabaki zuen, aurrez aurreko ikasjardura hauek egun eskura dauden internet galaxiako baliabideak erabiliz ordezkatu zitezkeela, euskaltegi eta ikastaro bakoitzak dituen ezaugarrien baitan.

Egoera honek hainbat zalantza sortu ditu euskaltegietan, jarraitu beharreko jardunbideei buruz.

Beraz, bidezkoa da aurrez aurreko jarduerak etenda dauden aldirako jarraibideak ematea, indarrean dagoen 2019/1 Jardunbidea (2019ko irailaren 13ko Ebazpenez onartua, eta 2019ko irailaren 27koaren bidez zuzendua) aplikatu ahal izateko etenaldiak irauten duen bitartean.

EBAZTEN DUT

2020/1 Jardunbidea onartzea eta jakinaraztea, COVID-19aren kutsatzearen ondoriozko hedapenari aurre egiteko aurrez aurreko jarduna etenik egongo den aldiaren matrikulazio eta ebaluazio zein egiaztatze gintzarako betebeharreko jarraibideak izan ditzaten, Ebazpen honen lehen eranskinean jasotzen den eran.

Donostian, 2020ko martxoaren 31n



HABE
Helduen
Alfabetatze eta
Berreuskalduntzerak
Erakundea

Jokin Azkue Arrastoa
HABEren zuzendari nagusia

ERANSKINA

COVID-19AREN KUTSATZEAREN ONDORIOZKO HEDAPENARI AURRE EGITEKO AURREZ AURREKO JARDUNAREN ETENALDIAN INDARREAN EGONGO DEN JARDUNBIDEA

1.- Aurrez-aurreko jarduna eten arte, asistentziari dagozkion ikastalde, irakasle eta ikasleen jarduera datuak indarrean zeuden ikastaroetan.

Aurrez aurreko jardunak eten baino lehen emandako talde-orduak, mintza-eta tutoretza-saioak barne, ikasleek hartutako orduak (asistentzia) eta ikasleen mugimenduak ondoren zehazten den eran bilduko dira matrikulazioaren jarraipenerako aplikazioan (Q87):

1.1 **Aurrez aurreko ikastereduan** aurrez aurreko jarduna eten artekoa (martxoaren 2tik 13ra artekoa, lehenago eten ez bada): emandako talde-orduak, ikasleek hartutakoak (guztira eta eguneroko asistentzia behar denean) eta epe horretan izandako mugimenduak (altak, bajak, talde-aldaketak) izan badira, jakina.

1.2 **Jardun biko ikastereduan:**

1.2.1 Aurrez aurreko jarduna eten artekoa (martxoaren 2tik 13ra artekoa, lehenago eten ez bada) aurrez aurreko ikastereduan bezala.

1.2.2 Tutoretza-saioetan ikasleek hartutako orduak: aurrez aurrekoak izan badira, martxoaren 2tik 13ra bitartekoak eta, aurrez aurreko jarduna eten ondoren, bide telematikoaren bidez gauzatutakoak.

1.3 **Tutorizatutako autoikaskuntzan** bigarren hiru hileko datuak:

1.3.1 Bakarkako lana: urtarrilean, otsailean eta martxoan ikasleek sartutako orduak.

1.3.2 Mintza-saioak: aurrez aurrekoak izan badira, urtarriletik jarduna bukatu arte hartutakoak eta hortik aurrera bide telematikoaren bidez gauzatutakoak.

1.3.3 Tutoretza-saioak: mintza-saioetan bezala.

1.4 **Datuak sartzeko epeak:** aurrez aurreko eta jardun biko ikastereduetako martxoko datuak eta tutorizatutako autoikaskuntzako urtarriletik martxora artekoak HABEren zuzendari nagusiaren 2019ko irailaren 13ko Ebazpenaren eranskinean jasotakoak, hau da, IVAPeko ikasleen kasuan apirilaren 1erako, eta gainerako ikasleen kasuan apirilaren 7rako.

Dena den, alarma-egoerak eraginda, aipatutako epeak dena delakoarengatik ezin badira bete, aurrez aurreko jarduna berriro ere baimentzen den egunetik aurrera proportzio berean luzatuko dira.

2.- Aurrez-aurreko jarduna eten arte, ikasleen ebaluazioen datuak indarrean zeuden ikastaroetan.

Euskaltegien eta autoikaskuntzarako zentroyen ECPetan aurreikusitako ebaluazioak orain arteko maiztasunarekin eta ohiko jarraibideen arabera bilduko dira matrikulazioaren jarraipenerako aplikazioan (Q87).

Dena den, alarma-egoerak eraginda, aurrez aurreko jardunen etenaldiak aipatutako ebaluazio-jarduerak burutzea eta matrikulazioaren jarraipenerako aplikazioan (Q87) biltzea eragotziko balitu, etenaldia amaitu ondoren berriro ere ohiko aurrez aurreko jarduerak berrezartzen direnean gauzatuko dira.

3.- Euskarazko komunikagaitasun-mailak egiaztatzeko HABEren deialdietan arautu eta aurreikusitako prozedurak eta egutegiak (balio egiaztatzailea duten ebaluazio-jarduerak).

HABEren zuzendari nagusiaren 2020ko martxoaren 16ko Ebazpenak jaso bezala, aurkako ebazpenik ematen ez den bitartean, 2020rako deialdietan HABEk finkatutako matrikulazio-epeak eta 2019ko azaroaren 13ko Ebazpenaren babesean A1, A2 eta B1 mailetarako programatutako ebaluazio jarraituko prozesuek berezkoak dituzten jarduera guztiak atzeratu dira. Era berean, Ebazpen horrek ere deialdi bakoitzari dagozkion oinarrietan aurreikusitakoarekin bat etorriz, ebaluaziogintza eta egiaztatze-gintzaren prozeduretan parte hartu ahal izatearren 2020ko martxoaren 16ra arte burututako prozesuetan egindako jarduera guztiei baliagarritasuna aitortzen die.

Horren ondorioz, alarma-egoerak eragindako etenaldia amaitu eta ohiko aurrez aurreko jarduerak berrezartzen direnean, HABEren zuzendari nagusiaren ebazpenez arautuko dira 2020ko deialdietarako matrikulazio-epe berriak, 2019ko azaroaren 13ko Ebazpenaren babesean A1, A2 eta B1 mailetarako programatutako ebaluazio jarraituko prozesuek berezkoak dituzten jarduera guztien berrezarpena eta B2, C1 eta C2 mailetako euskarazko komunikagaitasuna neurtzeko balio egiaztatzailea duten trebetasun hartzaileen ebaluazio-jardueren berrezarpena.

Horiek horrela, HABEren zuzendari nagusiaren 2019ko irailaren 27ko Ebazpenean, 2019/2 jardunbidea ematerakoan, xedatu zen euskaltegiek hiru aukera izango zituztela lau trebetasunak neurtzeko erabilitako eta ikasleek egindako ebaluazio-jarduerak biltzeko. Egun bizi dugun egoera kontuan hartuta, alegia, irakasle eta ikasleen arteko hartu-eman didaktiko-pedagogikoa euskarri elektronikoan ematen ari dela, trebetasunak neurtzeko egoera honetan egiten diren ebaluazio-jarduera guztiak matrikulazioaren jarraipenerako aplikazioan (Q87) bilduko dira, ikasle bakoitzari dagokion karpetan. Erabilitako proben enuntziatuak, berriz, ikaskuntza taldekoa zein jardun bikoia denean, taldeko dagokion ebaluazio-karpetan jasoko dira. Autoikaskuntzako ikasleen kasuan, enuntziatuok ikasle bakoitzaren karpetan jaso beharko dira, ENUNTZ marka jarrita.

4.- Martxoan edo apirilean amaiera aurreikusita zeukaten ikastaroak.

4.1.-Alarma-egoera indarrean ezarri ondoren, martxoan edo apirilean amaiera aurreikusita zeukaten ikastaroen kasuan, euskaltegiarentzat bideragarria bada, alarma-egoerak eragindako etenaldia amaitu eta ohiko aurrez aurreko jarduerak berrezartzen direnean, aurreikusitako talde-ordu teorikoak bukatuko dituzte eta amaiera-data berria emango zaie.

4.2.-Baina, euskaltegiarentzat aurreko lerroetan adierazitakoa bideragarria ez bada, ikastaro horiei aurreikusitako bukaera-data teorikoaz emango zaie bukaera, dagozkien datuak matrikulazioaren jarraipenerako aplikazioan (Q87) sartuz, hau da, bukaera-data erreal, emandako orduak, hartutakoak eta ikasleek lortutako mailak.

5.- Aurrez aurreko jardunaren etenaldiak iraun bitartean.

COVID-19aren kutsatzearen ondoriozko hedapenari aurre egiteko Osasun Sailaren Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendariak igorritako irizpideari jarraikiz, HABEren zuzendari nagusiak, bere eskumenen eremuan, erabaki zuen aurrez aurreko ikasjarduerak egun eskura dauden internet galaxiako baliabideak erabiliz ordezkari zitezkeela 2020 martxoaren 13tik aurrera, euskaltegi eta ikastaro bakoitzak dituen ezaugarrien baitan.

Egoera honetan, euskara-ikasleon jarduerari aurrerabidea eman nahian, HABEren zuzendariak aukera eskaintzen die euskaltegiarako arduradunei aurrez aurreko ikastaroetako egitaraua tutorizatutako autoikaskuntzaren eremura egokitzeke.

Eta halatan, alarma-egoera sortu zenean matrikulazioaren jarraipenerako aplikazioan (Q87) aurreko talde moduan indarrean zeuden ikastalde guztiak, HABEK, berariaz autoikaskuntza tutorizatutako talde moduan hartuko ditu. Izaera aldaketa honek ez du inolako isla praktikorik izango matrikulazioaren jarraipenerako aplikazioan (Q87), bai, ordea, gutxieneko jarraipena egin beharra, eta aurreko puntuetan zein honetan zehaztutako jarraibideari lotuko zaizkie, horietan emandako irakas- eta ikas-prozesuari buruzko informazioa jasotzeko dagokionez.

Zentzu horretan HABEK oinarritzat hartuko du zuzendaritzak martxoaren 13an euskaltegiei igorritako mezuan eskatutako txostena. Bertan jaso beharko lirateke:

- Euskaltegiak aurrez-aurreko jarduera ordezkatzeko egindako ekimenen deskribapena
- Ikasjarduerak agintzeko erabilitako plataforma; metodologia
- Erabilitako materialen deskribapena
- Irakasleen balorazioa ikasleek egindako lanarekiko eta emandako erantzunarekiko

5.1.- Asistentziaren jarraipena alarma-egoerak iraun bitartean

5.1.1.-Aurrez aurreko ikastereduko eta jardun biko ikastereduko aurrez aurreko taldeetan era telematikoaz emandako orduak eta ikasleek hartutakoak honela bilduko dira matrikulazioaren jarraipenerako aplikazioan (Q87), HABEK bestelako jardunbiderik ematen ez duen bitartean:

HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

- Etenaldia indarrean jarri zen egunetik (martxoaren 13tik lehenago izan ez bada) aurrera talde bakoitzean martxoan eta apirilean emandako orduak Q87ko apirileko zutabearen sartuko dira.

Oharra: emandako orduak aurreikusitako teorikoak baino gehiago ez dira izango.

Salbuespena: martxoaren 13tik 31ra bitartean bukatutako ikastaroak eta 4.2.- puntuari jasotakoak. Honelakoetan, martxoko zutabearen sartuko dira hilabete honetako datu guztiak, hau da, emandako orduak eta hartutakoak, bai etenaldi aurrekoak, bai etenaldian gauzatutakoak.

Datuak sartzeko epea: maiatzaren 8rako

- Etenaldiak maiatzean ere indarrean jarraituko balu, maiatzeko orduak Q87ko maiatzeko zutabearen sartuko dira.

Oharra: emandako orduak aurreikusitako teorikoak baino gehiago ez dira izango.

Datuak sartzeko epea: ekainaren 5erako

5.1.2.-Jardun biko tutoretza-saioak eta tutorizatutako autoikaskuntzako datu guztiak (bakarkako lana, mintza- eta tutoretza-saioak) orain arte bezala eta dagozkien epeetan sartuko dira.

5.2.- Ebaluazioen jarraipena alarma-egoerak iraun bitartean

Etenaldian burututako ebaluazioak jardunbide honetako 2.- eta 3.- puntuetan zehaztutako jarraibideari lotuko zaizkie.

6.- Aurrez aurreko ikastaro berrien sorrera.

Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak emandako aurrez aurreko jarduera bertan behera uzteko erabakia betez, alarma-egoerak dirauen artean HABEk ez du diruz lagunduko aurrez aurreko jarduera eskatzen duen ikastarorik.

Dena den, etenaldi honetan ikastaro berriak antolatu nahi dituzten euskaltegiek, ikasturtearen hasierako dirulaguntzaren esleipenean onartuta badaukate aurreikuspen hori, aurrez aurreko ikastaro horiek internet bidezko baliabideak erabiliz ordezkari ditzakete, beti ere, HABEren zuzendariaren 2019ko abuztuaren 29ko Ebazpenean, udal titularitateko euskaltegiei zuzendutakoan, eta 2019ko irailaren 10eko Ebazpenean, euskaltegi pribatu eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuei zuzendutakoan, 2. oinarrian eta II, Eranskinean jasotzen diren irizpideak betez. Horretarako, moldaketa horien berri emango diote HABEri ikastaroa hasi eta bost laneguneko epean. Halaber, epe horretan ere dagozkion datuak matrikulazioaren jarraipenerako aplikazioan (Q87) sartuko dituzte.

7.- Etenaldia amaitu ondoren.

Alarma-egoerak eragindako etenaldia amaitu eta aurrez aurreko jarduna berrezartzen denean, ohiko jarraipena emango zaie helduen euskara-ikastaroei. Eta, beharrezkotzat jotzen bada, HABEren zuzendari nagusiak jarraibide berriak emango ditu.